

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5313

AGINDUA, 2013ko azaroaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deia egiten zaie Lanbide Heziketako heziketa-zikloak 2013-2014 ikasturtean ematen dituzten itunpeko ikastetxeei eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoei.

Lanbide Heziketa ahalegin handia egiten ari da Europan, Estatuan eta Euskal Autonomia Erki-degoan bere araudia, curriculum, giza baliabideak eta baliabide materialak produkzio-sistemak ezartzen dizkion prestakuntza-eskaeretara egokitzeko.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoak lanbide-heziketako eskaintzen sistema integratu bat aurreikusten du: hezkuntza-sistemako hasierako lanbide-heziketa eta lan-sistemako enplegurako lanbide-heziketa. Legeak lanbide-kualifikazioen katalogo bat ezartzen du sistema integratuaren ardatz instituzional gisa, baita prestakuntzako baliabideak optimizatzen, ikaskuntzako emaitzak hobetzera eta, azken batean, biztanleria aktiboaren kualifikazio-maila gorena lortzera bideratutako eskumen profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura bat ere.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren ordenazio orokor berria ezartzen du. Agindu honen ondorioetarako, ordenazio berri horrek barne hartzen ditu erdi mailako eta goi-mailako graduako prestakuntza-zikloak nahiz hasierako lanbide-kualifikazio programetako berriazko lanbide-moduluak.

Agindu honen bidez, berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektuak finantzatzeko diru-laguntzetarako deialdia egiten zaie halako proiektuak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan garatzen dituzten itunpeko ikastetxeei eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoei. Deialdiaren helburuak hauek dira: lehiakortasuna hobetzea; kultura ekintzailea eta haren garrantzia sustatzea, enplegua eta gizarte ongizatea sortzeko iturri den aldetik; eta pertsonen lan-bizimoduan aldaketak eragiteko gaitasuna areagotzea.

Horiek horrela, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuak VI. Tituluan xedatutakoarekin bat etorritik (Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak eta diru-laguntzak arautzen ditu), honako hau,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Deialdi horren helburua da finantzabideak eskaintzea, berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektuak 2013-2014 ikasturtean gauzatu dituzten irakasleak erabat edo partez liberatzeko; izan ere, halako proiektuak beharrezkoak dira Lanbide Heziketaren prestakuntza-eskaintza egokitzeko produkzio-sistemaren premietara, Irakasle horien egitekoa, ezagutza gainerako ikastetxeei transferitzeko.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Erakunde onuradunak izango dira 2012-2013 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak itunduta edo hitzartuta dituzten itunpeko ikastetxeak eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoak, betiere 5. artikuluan zehazten diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

3. artikulua.– Diruz laguntzeko moduko jarduerak eta horiek egiteko epea.

1.– Berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektu hauek dira deialdi honen bidez diruz lagundu daitezkeenak (l. eranskinean ageri dira, zehatzago):

- a) Karbono-zuntzeko egiturak diseinatzea.
 - b) Material ez-konbentzionalen mekanizazioa.
 - c) Fabrikazio mekanikoan, makinaren egoera egiaztatzekeo teknikak.
 - d) Android sistema baliatzea tresna industrialen erabileran.
 - e) Datuen tratamendua eta sensorika egitea, ahaleginak kontrolatzeko.
 - f) Ikaskuntza-esparruak. Arte grafikoetako aurreinprimaketa digitaleko metodologia berriak.
 - g) Ikaskuntza-esparruak. Automozioeko metodologia berriak.
 - h) Ikaskuntza-esparruak. Haur-hezkuntzako metodologia berriak.
 - i) Ikaskuntza-esparruak. Fabrikazio mekanikoko metodologia berriak.
 - j) Ikaskuntza-esparruak. Soldadurako eta galdaragintzako metodologia berriak.
 - k) Ikaskuntza-esparruak. Administrazio eta finantzetako metodologia berriak.
 - l) Ikaskuntza-esparruak. Analisiak egiteko eta kalitatea kontrolatzeko laborategietarako metodologia berriak.
 - m) Ikaskuntza-esparruak. Fabrikazio mekanikoan diseinuak egiteko metodologia berriak.
 - n) Ikaskuntza-esparruak. Mantentze elektronikoko metodologia berriak.
 - o) Goi-mailako jardueretako zikloak. Fabrikazio mekanikoko metodologia berriak.
 - p) Mugaketetan oinarritutako ereduaren bidez, teknologia-arloko berrikuntzak egitea, eta kudeaketa-, produkzio- eta lehiakortasun- sistemak hobetzea.
 - q) Ikastetxeen kudeaketa hobetzeko, baliabideak aurrezteko eta ezagutza transferitzeko berrikuntza aplikatua, irрати-maiztasuneko identifikazio-teknologia bidez.
 - r) Material berriztagarrien mekanizazioa elastomeroak diseinatu eta prestatze aldera.
 - s) Mekatronika, ibilgailu hibrido eta elektronikoen automozioari aplikatua.
 - t) Medikuntzaren eta osasunaren arloan estetika integrala diseinatzea.
 - u) Galdaketaren arloan prototipo berriak diseinatzea.
 - v) Ezagutza eraman eta transferitzea lanbide heziketako ikastetxeetatik, enpresa txikien funtsezko prozesuetan berrikuntza eta hobekuntza sustatzeko.
 - w) Estanpazio-prozesuak diseinatu eta optimizatzea.
 - x) Berrikuntza elektrikoa, automozio-arloko propulsiio alternatiboko motor berrietan.
- 2.– Esleipena egin ondoko 10 eguneko epean hasita egon beharko dute diruz lagundutako jarduerak, eta 2014ko abuztuaren 31n bukatuta.

4. artikulua.– Diru-laguntzaren aurrekontu-hornidura eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztea.

1.– Agindu honen xede diren jarduerak diruz laguntzeko zenbateko osoa zazpiehun eta hirurogeita hamar mila eurokoa (770.000) izango da.

2.– Artikulu honetan adierazitako zenbatekoa areagotu ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan harturik, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean beste laguntza-programa batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira, betiere diru-laguntzak ebatzi aurretik. Horrelakoetan, Lanbide Heziketako sailburuordearen ebazpen bidez emango da horren berri.

3.– Proiektu bakoitzeko emango den diru-laguntza I. eranskinean adierazita dago; kontuan hartu behar da irakasle bat erabat liberatzeagatik emango den diru-laguntza 42.000 eurokoa izango dela.

5. artikulua.– Baldintzak.

1.– Diru-laguntzak jaso ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte ikastetxe onuradunek:

a) 2012-2013 ikasturtean lanbide heziketako heziketa-zikloak eman dituen itunpeko ikastetxea edo ikastetxe hitzartua izatea.

b) Diru-laguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo horretarako ezgaitzen dituen lege-debekuren baten eraginpean ez egotea, ezta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan ezarritakoa ez betetzeagatik zigortuta ez egotea ere (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena).

c) Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zergak ordainduta izatea.

Laguntzak eskatzen dituzten ikastetxeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, horien baimenik behar izan gabe, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, aplikatuta.

2.– Gainera, I. eranskinean proiektu bakoitzerako zehaztutako baldintzak ere bete beharko dira.

6. artikulua.– Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea, eta izapidetze elektronikoa.

1.– Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, euskadi.net egoitza elektronikoa; aurkezteko epea 15 eguneko izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Zenbat proiektutarako eskatzen den diru-laguntza, beste horrenbeste eskabide aurkeztuko dira.

3.– Eskabidearekin batera, «Berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektua» izeneko agiria aurkeztuko da, eta proiektuen arteko lehentasun-hurrenkera zehaztuko.

4.– Horretaz gainera, fitxategi batean deskribatuko da nolakoa den ikastetxeak garatuko duen proiektua, helburuak eta ezaugarriak zehaztuta.

5.– Proiektua beste herri administrazio batzuekin batera finantzatzen bada (ikus 8.4.b) artikulua), kofinantzazio horren inguruko agiriak aurkeztuko dira eskabidearekin batera.

6.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak, eta Platea E-Administrazioiko Plataforma Teknologikoa onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak arautzen dute Izapidetze elektronikoa.

7.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta eskazen diren agiri guztien ereduak modu elektronikoa nola izapidetu jakiteko, jo helbide elektronikoa honetara:

<https://euskadi.net/dirulaguntza/-/2013/proyectos-innovacion/eu>

8.– Ikastetxe interesdunek bitarteko elektronikoa erabili beharko dituzte prozedura horren izapideak eskatu, kontsultatu eta egiteko.

9.– Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira:

<https://www.euskadi.net/nirekudeaketak>

7. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

1.– Aurkeztu den eskabidean akatsen bat edo okerren bat dagoela ikusten bada, 10 eguneko epea emango zaio ikastetxe interesdunari akatsa zuzen dezan edo behar diren agiriak ekar ditzan. Hala egin ezean, eta 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera ebazpena eman ondoren, bere eskaeran atzera egin duela joko da (azaroaren 26koa 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

2.– Modu elektronikoz jakinaraziko da akatsak zuzendu beharra.

8. artikulua.– Esleitzeko prozedura eta irizpideak.

1.– Ikastetxe bakoitzak gehienez hiru proiektutarako eskatu ahal izango du diru-laguntza.

2.– Diru-laguntza honen xede diren proiektuetako bakoitza gauzatzeko, lanbide heziketako ikastetxe bakarra hautatuko da.

3.– Ez dira diruz lagunduko arduradun bera duten bi proiektu edo gehiago.

4.– Diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraz esleitu dira, honako irizpide hauei jarraituz:

a) I. eranskinean adierazten diren heziketa-zikloetan 2012-2013 ikasturtean matrikulatutako ikasle-kopurua. Gehienez ere, 6 puntu emango dira. Atal horretan lanbide-arlo bateko heziketa-zikloren bat adierazten bada, aintzat hartuko dira ikastetxeak lanbide-arlo horretan ematen dituen lanbide heziketako ziklo guztiak.

b) Proiektuak beste herri administrazio batzuekin batera finantzatzea. Gehienez ere, 4 puntu emango dira, eta puntuaziorik handiena emango zaio kanpo-finantzazioko ehuneko handiena duenari.

c) Azken lau ikasturteetan, Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin edo beste herri administrazio batzuekin lan egin izana beste proiektu batzuetan. Gehienez ere, 4 puntu emango dira, eta puntuaziorik handiena emango zaio proiektu gehien egin duenari.

d) I. eranskinean proiektu bakoitzerako adierazten den balorazio espezifiko egiteko, eranskin horretan bertan adierazten den puntuazioa erabiliko da.

5.– Aurreko idatzi-zatietan puntu gehien lortzen duen ikastetxeari gehieneko balorazioa egokituko zaio, eta gainontzekoak baloratzeko, proportzio simple bat erabiliko da.

6.– Artikulu honetako 4. paragrafoko puntuazioan berdinketa gertatuz gero, proiektuko arduranari buruzko irizpideak erabiliko dira berdinketa hausteko; hona hemen irizpideok:

a) Euskara-maila: irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea izanez gero, puntu 1 emango da, eta, irakaskuntzako 1. hizkuntza-eskakizuna badu, 0,3 puntu.

b) 0,3 puntu emango dira I. eranskinean dagokion atalean adierazitako heziketa-zikloetan irakasten emandako urte bakoitzeko. Gehienez ere, puntu bat emango da. Atal horretan heziketa-ziklo bat bera ere zehazten ez bada, ez da kontuan hartuko atal hori.

c) Puntu batez baloratuko da ikastetxeak izendatutako proiektu-arduraduna kontratu mugagabeduna izatea edo ikastetxeko bazkide izatea.

7.– Artikulu honetako 6. paragrafoa baloratzeko, parte-hartzaile bakoitzaren Hezkuntza Jardueren Dokumentua eskatuko zaio ofizioz Hezkuntza Ikuskaritzari.

9. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritza izango da diru-laguntza emateko organo instruktorea.

2.– Balorazio-batzorde batek aplikatuko ditu balorazioa eta hautaketa egiteko agindu honetan jasotzen diren irizpideak. Batzordekideak hauek izango dira:

a) Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendaria; lehendakaria izango da.

b) Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduraduna.

c) Lurralde-ordezkaritza bakoitzeko Lanbide Heziketako Zuzendaritzako teknikari bat.

d) Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzako teknikari bat; idazkari izango da; iritzia ematerik izango du, baina botorik ez.

10. artikulua.– Ebazpen-proposamena.

Balorazio-batzordeak ebazpen-proposamena egingo dio Lanbide Heziketako sailburuordeari, eta, hartan, 11.1 artikuluan adierazten diren zehaztasunak jasoko dira.

11. artikulua.– Ebazpena.

1.– Lanbide Heziketako sailburuordeak ebatziko du deialdia, eta EHAAn argitaratutako iragarki baten bidez jakinaraziko zaie ikastetxe interesdunei, erakunde onuradunak eta emandako zenbatekoa zehaztuta. Ebazpen horretan zehaztu egingo dira, halaber, ezetsitako eskabideak eta, atzera egiteagatik edo ezustean sortutako baliabide material ezagatik, laguntzarik jasoko ez dutenak.

2.– Administrazioaren isiltasunari dagokionez, deialdi hau argitaratu eta sei hilabeteko epean argitara eman ez bada aurreko lerroaldean aipatutako iragarkia, eskabideak ezetsi egin direla ulertuko da, hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan.

3.– Diru-laguntzak eta laguntzak onuradunei esleitzeko eta, hala behar bada, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek eman dituzten eta izaera berekoak diren laguntza edo diru-laguntzengatik hasi eta oraindik ere izapidetzen ari den prozedura oro.

12. artikulua.– Justifikazioa.

1.– Agindu honetan adierazitako berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektuak finantzatzeko diru-laguntzak justifikatzeko, «Erantsitako nominen bidezko justifikazioa» izeneko fitxategia bete beharko da, eta, horrekin batera, dagozkion nominen kopia aurkeztu, 2014ko urriaren 11 baino lehen.

2.– Justifikazio horiek bide elektronikoz aurkeztu beharko dira web-gune honetan: <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak>

3.– Agindu honetan diruz lagundutako jardueren arduradunek astean zenbat orduko liberazioa duten zehaztu beharko da, Hezkuntza Jardueren Dokumentuan (HJD) zehaztu ere. Hori ere erantsi beharko da.

4.– Proiektu bakoitza amaitutakoan, proiektuari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko diote ikastetxeek Sailburuordetzari, ezarritako eta lortutako helburuak zehatz adierazita.

13. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

1.– Berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektu hauei dagozkien diru-laguntzak bi alditan ordainduko dira, honela:

a) Lehenengo aldia, onuradun bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 50 ordainduko da, betiere 16.1 artikuluko epea igaro bada eta diru-laguntzari uko egin ez bazaio.

b) Bigarren aldia, gainerako zenbatekoa ordainduko da, diruz lagundutako jarduera amaitu eta sortutako gastuak agiri bidez justifikatu ondoren.

2.– Artikulu honetan aipatutako lehenengo ordainketei edo aurreratutako ordainketei dagokiez, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako bermeak aurkeztu beharko dira (1992ko otsailaren 7ko EHAA, 26. zk.).

14 artikulua.– Baldintzak ez betetzea eta itzulketa-prozedura.

1.– Laguntzak ezeztatu egingo dira baldin eta ikastetxe onuradunek bete gabe uzten badituzte agindu honetan ezarritako baldintzak eta betekizunak, eta laguntzak ez badituzte erabiltzen aurkeztutako proiektuan zehaztutako helburuetarako. Hori dela-eta, diru-laguntzak benetan zertara bideratu diren egiaztatze eskumena izango du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak.

2.– Diru-laguntza ematerakoan kontuan izan ziren baldintzak betetzen ez badira, jasotako dirua eta horrek sortutako legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuliko zaizkio. Hala ezartzen dute Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta Euskal Autonomia Erkidegoan diru-laguntzen bermeak eta itzulketak arautzen dituen 698/1991 Dekretuak.

3.– Lehen esandakoari kalterik egin gabe, diru-laguntza emateko kontuan izan ziren baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada, aldatu egin ahal izango da diru-laguntza emateko ebazpena ere, betiere agindu honetan onuradun izateko ezarritako baldintzak errespetatzen badira.

15. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste instituzio publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Beste diru-laguntza edo laguntza batzuk jaso gero, horren berri eman beharko da. Izan

ere, gainfinantzaketarik gertatuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

16. artikulua.– Jarduera egiteko baldintzak, eta ikastetxe onuradunen betebeharrak.

Diru-laguntzen onuradunek baldintzak hauen arabera eta betebeharrak hauek beteta egin beharko dute jarduera:

1.– Onartu egin beharko dute emandako diru-laguntza. Horretarako, diru-laguntzaren esleipena jakinarazi eta hamabost eguneko epean ikastetxe onuradunek berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko dute.

3.– Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman beharko diete, haien jardunean ari direla deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzei buruz eskatzen dieten informazioa.

4.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik agindu honetako helburu bere-rako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari.

5.– Laguntza ematerakoan kontuan izandako gorabeheraren bat aldatzen bada, horren berri eman beharko diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari.

6.– Proiektu bakoitzaren jarraipenaren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari, zuzenean edo haren erakunderen baten bidez (Tknika lanbide heziketako berri-kuntza-zentroaren bidez, adibidez).

7.– Ikastetxeak ezin izango du aldatu proiektuko arduraduna, harik eta amaitzen den arte. Justifikatutako arrazoiak direla-eta proiektuaren arduradunak ezin badu jarraitu, ikastetxeak hura ordezkatzeko baimena eskatuko dio Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariari, haren onespena lortzeko, eta proiektuaren ardura bere gain hartuko duen pertsonari buruzko datuak adierazi beharko ditu.

8.– Proiektuak gauzatzeko hautatutako ikastetxe guztiek irakastorduetatik libre utzi beharko dute proiektuaren arduraduna, I. eranskinean adierazitako astegunetan, eta 3.2 artikuluan zehaz-tutako epean. Hartara, Tknika-n garatu ahal izango du proiektua. Halaber, egoera horren berri jaso beharko da Hezkuntza Jardueren Dokumentuan (EJD).

17. artikulua.– Datuak babestea.

1.– Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organi-koarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen izapideak egiterakoan jasotako datu pertsonalak –parte-hartzaileek tratatzea eta argitaratzea baimendu dituztenak– «Diru-laguntzak eta laguntzak» izeneko fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi horren helburua diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea izango da, baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruzko informazioa ematea ere. Fitxategi honen arduraduna Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritza da. Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzaren aurrean balia daitezke. Horretarako, honako helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

2.– Berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektuetan parte hartzeak berekin dakar Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari baimena ematea beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako agiriak egiazkoak direla.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honetan prozedurari buruz arautu gabe geratu diren alderdiei Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko zaie.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 26a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

PROIEKTU BAKOITZAREN EZAUGARRI, BETEKIZUN ETA BALORAZIO ESPEZIFIKOAK.

Eranskin honetan heziketa-zikloak aipatzean, 2012-2013 ikasturtean emandako zikloez ari gara.

Hona hemen agindu honetan aipatzen diren proiektu diruz lagungarriak, proiektuek bete beharreko helburuak, balorazio espezifikoak, betekizun espezifikoak –proiektu motaren araberakoak, denak ere– eta proiektu bakoitzaren ezaugarri espezifikoak:

1.– Karbono-zuntzezko egiturak diseinatzea.

- Ikastetxeak honako heziketa-ziklo hauek eman behar ditu:
 - Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
 - Fabrikazio mekanikoko diseinua
 - Fabrikazio mekanikoaren arloko beste heziketa-ziklo bat.
- Balorazio espezifikoa:
 - Fabrikazio mekanikoaren arloko hiru heziketa-ziklo desberdin baino gehiago emanaz gero, 4 puntu.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa: 21.000 euro.
- Proposatutako funtzio eta helburuak:
 - Karbono-zuntzezko pieza-egiturak garatu eta diseinatzea.
 - Piezak karbono-zuntzez fabrikatzeko prozesuak ezagutu eta menperatzea.
 - Karbono-zuntzaren osagaien erresistentzia neurtzea.
 - Aurrerapen teknologikoen gaineko ezagutza transferitzea lanbide heziketa ematen duten gainerako ikastetxeei.
 - Teknologia horiek egokitzea eta irakaskuntzako heziketa-programetan sartzea, ahal den neurrian.
 - Benetako lantegi baten antzeko giroan prestatzea ikasleak, eta etengabeko hobekuntzak egiteko eta arazoak in situ konpontzeko teknikak eta erremintak erabiltzea.
 - Ikasleengan sustatzea enpresen produkzio-eraginkortasuna hobetzen laguntzeko lan-tankerak.
 - Produkzioaren optimizazioa lortzen saiatzea.
- Irakastordurik gabeko egun-kopurua: bi.
- Zenbat lagun egongo diren irakastorduetatik liberatuta: bat.

2.– Material ez-konbentzionalen mekanizazioa.

- Ikastetxeak honako heziketa-ziklo hauek eman behar ditu:
 - Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
 - Fabrikazio mekanikoko diseinua
- Balorazio espezifikoa:
 - Bat ere ez.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa: 21.000 euro.
- Proposatutako funtzio eta helburuak:
 - Material ez-konbentzionalerik egindako piezak garatu eta diseinatzea.
 - Material ez-konbentzionalerik mekanizazio-probak ezagutzea eta egitea.
 - Material bakoitzaren ezaugarri behinenak eta ebaketa-baldintza egokienak ezagutzea.
 - Aurrerapen teknologikoen gaineko ezagutza transferitzea lanbide heziketa ematen duten gainerako ikastetxeei.

- Teknologia horiek egokitzea eta irakaskuntzako heziketa-programetan sartzea, ahal den neurrian.
- Benetako lantegi baten antzeko giroan prestatzea ikasleak, eta etengabeko hobekuntzak egiteko eta arazoak in situ konpontzeko teknikak eta erremintak erabiltzea.
- Ikasleengan sustatzea enpresen produkzio-eraginkortasuna hobetzen laguntzeko lan-tankerak.
- Produkzioaren optimizazioa lortzen saiatzea.
- Irakastordurik gabeko egun-kopurua: bi.
- Zenbat lagun egongo diren irakastorduetatik liberatuta: bat.

3.– Fabrikazio mekanikoan, makinaren egoera egiaztatzeko teknikak.

- Ikastetxeak honako heziketa-ziklo hauek eman behar ditu:
 - Mantentze elektromekanikoa.
 - Mekatronika industrialia.
- Balorazio espezifikoa:
 - Bat ere ez.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa: 21.000 euro.
- Proposatutako funtzio eta helburuak:
 - Makinak egiaztatzeko teknikak ezagutu eta erabiltzea, hala nola teknika geometrikoak, bolumetrikoak, interferometro edo ballbar bidezkoak.
 - Teknikak probatu eta aplikatzea, ikastetxeetan erabilgarri dauden baliabideak eta makinak erabiliz.
 - Aurrerapen teknologikoen gaineko ezagutza transferitzea lanbide heziketa ematen duten gainerako ikastetxeei.
 - Teknologia horiek egokitzea eta irakaskuntzako heziketa-programetan sartzea, ahal den neurrian.
 - Benetako lantegi baten antzeko giroan prestatzea ikasleak, eta etengabeko hobekuntzak egiteko eta arazoak in situ konpontzeko teknikak eta erremintak erabiltzea.
 - Ikasleengan sustatzea enpresen produkzio-eraginkortasuna hobetzen laguntzeko lan-tankerak.
 - Produkzioaren optimizazioa lortzen saiatzea.
- Irakastordurik gabeko egun-kopurua: bi.
- Zenbat lagun egongo diren irakastorduetatik liberatuta: bat.

4.– Android sistema baliatzea tresna industrialen erabileran.

- Ikastetxeak honako heziketa-ziklo hauek eman behar ditu:
 - Mantentze elektromekanikoa.
 - Mantentze elektronikoa.
- Balorazio espezifikoa:
 - Bat ere ez.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa: 21.000 euro.
- Proposatutako funtzio eta helburuak:
 - Aplikazio industrialak zehatz ezagutzea, kontrol industrialaren ordean android-en oinarritutako programazio-sistemak erabiltzeko.
 - Kontrol industrialeko sistemak konfiguratzea, android-entzat garatutako aplikazio bidez.
 - Android-en oinarritutako kontrol-sistemen funtzionalitateak ustiatzeko prozesuak garatzea.
 - Aurrerapen teknologikoen gaineko ezagutza transferitzea lanbide heziketa ematen duten gainerako ikastetxeei.

- Teknologia horiek egokitzea eta irakaskuntzako heziketa-programetan sartzea, ahal den neurrian.
- Benetako lantegi baten antzeko giroan prestatzea ikasleak, eta etengabeko hobekuntzak egiteko eta arazoak in situ konpontzeko teknikak eta erremintak erabiltzea.
- Ikasleengan sustatzea enpresen produkzio-eraginkortasuna hobetzen laguntzeko lan-tankerak.
- Produkzioaren optimizazioa lortzen saiatzea.
- Irakastordurik gabeko egun-kopurua: bi.
- Zenbat lagun egongo diren irakastorduetatik liberatuta: bat.

5.– Datuen tratamendua eta sensorika egitea, ahaleginak kontrolatzeko.

- Ikastetxeak honako heziketa-ziklo hauek eman behar ditu:
 - Automatizazio eta robotika industrialak.
 - Mekatronika industrialak.
 - Sistema elektroteknikoak eta automatikoak
- Balorazio espezifikoa:
 - Bat ere ez.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa: 21.000 euro.
- Proposatutako funtzio eta helburuak:
 - Hainbat egoeratan ahaleginak aztertzea, bai eta ahaleginen ondoriozko desitxuratzeak ere.
 - Eragindako desitxuraztearen seinaleak jasotzeko sistema bat diseinatzea.
 - Kasu bakoitzean seinale horiek jasotzeko diseinatutako sistemaren funtzionamendua aztertu, ezagutu eta egiaztatzea.
 - Aurrerapen teknologikoen gaineko ezagutza transferitzea lanbide heziketa ematen duten gainerako ikastetxeei.
 - Teknologia horiek egokitzea eta irakaskuntzako heziketa-programetan sartzea, ahal den neurrian.
 - Benetako lantegi baten antzeko giroan prestatzea ikasleak, eta etengabeko hobekuntzak egiteko eta arazoak in situ konpontzeko teknikak eta erremintak erabiltzea.
 - Ikasleengan sustatzea enpresen produkzio-eraginkortasuna hobetzen laguntzeko lan-tankerak.
 - Produkzioaren optimizazioa lortzen saiatzea.
- Irakastordurik gabeko egun-kopurua: bi.
- Zenbat lagun egongo diren irakastorduetatik liberatuta: bat.

6.– Ikaskuntza-esparruak. Arte grafikoetako aurreinprimaketa digitaleko metodologia berriak.

- Ikastetxeak heziketa-ziklo hau eman behar du:
 - Aurreinprimaketa digitala.
- Balorazio espezifikoa:
 - Arte grafikoaren arloko beste zikloren bat emanez gero, 4 puntu.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa: 14.000 euro.
- Proposatutako funtzio eta helburuak:
 - Aldaketa metodologikoak ezartzea, aurreinprimaketa digitaleko zenbait teknika erabiliz, hala nola PBL-a, simulazioak, kasuen analisia...
 - Intermodulazio-programazioak esperimentatzea eta ezartzea.
 - Konpetentziak ebaluatzeko eta hobetzeko tresnak erabiltzea bai alderdi teknikoan, bai profesionalean.

- Aurrerapen teknologikoen gaineko ezagutza transferitzea lanbide heziketa ematen duten gainerako ikastetxeei.
- Teknologia horiek egokitzea eta irakaskuntzako heziketa-programetan sartzea, ahal den neurrian.
- Benetako lantegi baten antzeko giroan prestatzea ikasleak, eta etengabeko hobekuntzak egiteko eta arazoak in situ konpontzeko teknikak eta erremintak erabiltzea.
- Ikasleengan sustatzea enpresen produkzio-eraginkortasuna hobetzen laguntzeko lan-tankerak.
- Produkzioaren optimizazioa lortzen saiatzea.
- Irakastordurik gabeko egun-kopurua: bat (ostegunak).
- Zenbat lagun egongo diren irakastorduetatik liberatuta: bi.
- Ikastetxe bakoitzean, Aurreinprimaketa digitaleko talde baten irakastorduen % 70etik gora eman behar dute proiektu horretan arituko diren pertsonak, hain zuzen ere metodologia horiek zikloaren hainbat modulutan aplikatu daitezten.

7.– Ikaskuntza-esparruak. Automozioiko metodologia berriak.

- Garraioen eta ibilgailu-mantentzearen arloko hainbat heziketa-ziklo eman behar ditu ikastetxeak.
- Balorazio espezifikoak:
 - Bat ere ez.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa: 14.000 euro.
- Proposatutako funtzio eta helburuak:
 - Aldaketa metodologikoak ezartzea, automozioan zenbait teknika erabiliz, hala nola PBL-a, simulazioak, kasuen analisia...
 - Intermodulazio-programazioak esperimentatzea eta ezartzea.
 - Konpetentziak ebaluatzeko eta hobetzeko tresnak erabiltzea bai alderdi teknikoan, bai profesionalean.
 - Aurrerapen teknologikoen gaineko ezagutza transferitzea lanbide heziketa ematen duten gainerako ikastetxeei.
 - Teknologia horiek egokitzea eta irakaskuntzako heziketa-programetan sartzea, ahal den neurrian.
